



argazkilaritza maiatzean

argazkia Gabriel Brau

**EIBAR 2008**





Argazkia: Gotzone Merino

**Badihardugu (eta jarraituko dugu):**

Berrero ere hemen gaude Klub Deportiboko Argazki Taldekook, urte osoan zehar egindako gure eguneroko lanaren muestra bat aurkeztuz urtean zehar izaten dugun gure sasoirik beteenean. Argazkilaritza Maiatzean Eibarren. Ez da Eibarren (edo beste leku batean) egiten dugun erakusketa kolektibo bakarra. Urtean zehar erakusketa asko egiten ditugu, eta ez dugu sekula izaten argazki falta, gure lanak kontaezinak baitira (taldeko argazkilariok behar asko egiten dugu, gure obra sortzen eta garatzen ibiltzen gara etengabe); gure arazoa, ostera, lekua da, gure lanak erakusteko lekurik eza.

Joan zen urtean beste esparru berri bat aurkitu genuen gure argazkiak erakusteko: Portaleko taberna. Aurten, beraz, El Ambigú tabernan eta Portalean, bietan, jarriko dugu gure erakusketa kolektiboa, argazkilari-kopuruak gora egin duelako eta leku gehiagoren premian gaudelako, argazkilari bakoitzak gutxienez argazki bat ipintzeko aukera izan dezan.

Gehiago haziko gara, etengabe: leku gehiago behar dugu gure lanak erakusteko.

**Lagundu!!!!**

\*\*\*\*\*

**Seguimos (y seguiremos)**

*Otra vez estamos aquí los del Klub Deportivo Argazki Taldea presentando una muestra de nuestro trabajo diario, realizado a lo largo de todo el año, en nuestra temporada más completa a lo largo del mismo: el Mayo Fotográfico en Eibar.*

*No es la única exposición colectiva que hacemos en Eibar (o en otros lugares); a lo largo del año hacemos varias nunca coartadas por la disponibilidad de obra que es casi ilimitada, (los y las fotógrafos/as del grupo trabajamos mucho, creamos y desarrollamos nuestra obra constantemente), sino por la disponibilidad de espacios.*

*Este año pasado hemos incorporado un nuevo espacio que gestionamos: la Taberna de Portalea a la que este año extendemos la exposición colectiva desde El Ambigú al haber crecido el número de fotógrafos/as y ser necesario mayor espacio para que al menos cada uno/a tenga una fotografía en la exposición.*

*Creceremos más, lo haremos sin parar: necesitamos más espacios para exponer:*

**¡ Socorro.....!**

[www.deporeibar.com/argazkia](http://www.deporeibar.com/argazkia)

**Eibarko Klub Deportiboko  
Argazki Taldea**

Tokia/Lugar: El Ambigú Café (Julián Etxebarria) & Portalea Taberna (Bista Eder)

Data/ Fecha maiatzak 1-31 mayo

**erakusketa kolektiboa / exposición  
colectiva**

## Gabriel Brau

Tokia/Lugar: Portalea(Bista Eder)

Data Fecha: Maiatzak 1-31 mayo

### erakusketa / exposición

#### AFRIKAKO ARGIAK

Afrikara, lehen aldiz, 1998. urtean joan nintzen, eta hasieratik jakin nuen esperientzia hura nire bizitzaren inflexio-puntu bat izango zela.

Ordura arte, nire estudiotik gutxitan ateratzen nintzen argazkiak egitera, baina nire aurreneko bidaia hark argazkilaritza ulertzeko nuen era aldarazi zidan. Urrats berri bakoitzak miresten une bat eskaintzen zidan; nire begiek ikusten zuten eszena berri bakoitzean kausitu nezakeen argazki balioa. Kontua ez zen jada konponitzea; garrantzizkoa begiratzea zen, ikustea, deskubritzea, eta batik bat, ikusitako hura kontatu ahal izatea eta bidean zehar topatzen nituen bizitza istant haiek transmititzea.

Urte hauetan zehar Afrikako beste herrialde batzuetara bidaiak egiten segitzeko zortea izan dut; eta bertako gizonezko, emakume, ume eta edadetuak nahiz euren bizi-esperientziak ezagutzeko pribilegioa ere bai, nire irudien bidez erakusten utzi dizkidatenak:

Tuaregak, aberririk gabeko mundu batean bizi izatera behartu dituen legenda batek eratuak, Keniako masaiak Maliko dogoiak eta Burkinako lobiak, denak, euren herrialdeetako hedapen prozesuarengatik, turismoa erakartzeko erabiliak.

Banbara, bassari, mandinga edo konso bezalako herriak, egunetik egunera euren lurzoruak landuz bizitzen jarraitzen dutenak, edo Omo bailarako surmak, mendebaldeko lurretako peulak eta afar ederrak, urtero, oinez, ehundaka kilometro egiten dituztenak euren abereak gobernatzeko belar apur baten bila.

Eta beste hainbeste, Niger errekekako bozo arrantzaleak edo Turkana lakuko dasanech nomadak, esate baterako, pobrezia eta isolamenduak desagertzeko bidean jarri dituenak.

Denek erakutsi didate euren abegitasuna, euren ohiturak, euren serenitatea eta izaera noblea.


\*\*\*\*\*  
*LUCES DE ÁFRICA es un recorrido por el día a día de estas personas, un paseo por sus tradiciones y sus costumbres, a la vez que un homenaje de admiración, respeto y gratitud por haberme permitido compartir sueños y esperanzas.*

*Debo agradecerles a ellos y a quienes me han acompañado a lo largo de estos viajes su comprensión, su apoyo, su paciencia y su generosidad.*

*Sin todos vosotros nada hubiera sido posible.*

[www.gabrielbrau.com](http://www.gabrielbrau.com)





## Leize Ikerle Taldea Eibarko Klub Deportiboa

Tokia/ Lugar: Portalea (Bista Eder  
Erakusketa Gela / Sala de Exposiciones

Data/Fecha: maiatzak 1-31 mayo

[erakusketa / exposición](#)

Deba Arroan eta bere inguruan dauden kobazuloak eta leizeak ikusteko aukera dugu erakusketa honen bidez. Haitzuloen sarrerak, koba barruko areto handiak, han dauden saguzarrak eta hartz baten eskeletoa ere ikusiko ditugu.

Irudiak erliebean ikusteko betaurreko bereziak ipini behar dira, koloretako bi iragazki dituztenak, bata urdina eta bestea gorria. Betaurrekoak erakusketa aretoan bertan emango zaizkie ikusleei; eta ikusi ondoren, bertan utziko dira.

\*\*\*\*\*  
*La exposición consta en 3D de cuevas y simas de la Cuenca del Deba y su entorno. Se pueden contemplar desde los accesos a las grutas, grandes salas subterráneas con murciélagos y hasta el esqueleto de un oso.*

*Para ver las imágenes en relieve hay que ponerse unas gafas especiales con dos filtros de colores azul y rojo. Las gafas se recogen y entregan en la propia sala de exposiciones.*

## Javier Arcenillas

Tokia/Lugar: PORTALEA (Bista Eder)

Erakusketa Gela / Sala exposiciones.

Data/Fecha: maiatzak 1-31 mayo

**erakusketa / exposición**

### CITY HOPE

Laurogeita hamarreko hamarkadaren erditik hona, Erdialdeko Ameriketako hiriburu handien zabor-hondakindegiek erabateko aldaketa izan dute. Gaur egun ere asko dira plastikoaren edo beiraren makro-

hiri hauetan hondakinak erreziklatzetik bizi diren familiak. Guatemalako La Esperanza, Dominikar Errepublikako La Duquesa edo Managuako Acahualinca bezalako auzoak hondakindegietan zaborrak biltzera egokitu diren komunitateen isla dira.

Latinoamerikan hondakin ez organikoak biltzea lantzat duten ehunka biztanleren bizimodua eta euren bizitokiak islatzen ditu erakusketa honek. Cover Agentziarekin eta Medicus Mundi GKErekin batera egindako argazki-saiakera hau erakusketa honi laguntzen dion City Hope liburuan dago islatuta, Kazetaritzako "Doñana" saria jaso duen liburuan.

Erakusketa 30 argazki osatzen dute, eta jendea Ingurumenaren nahiz Garapen Iraunkorraren arazoaz jabetzea du helburu, gaur egun benetan kezkatzen gaituzten gaiak baitira.

\*\*\*\*\*

*Desde mediados de los noventa los asentamientos limítrofes con los vertederos de basuras en las grandes capitales centroamericanas han sufrido una transformación radical. A día de hoy son numerosas las familias que viven del reciclado de los residuos desechables en estas macrociudades del plástico o el vidrio, su supervivencia económica depende de ello. Barrios completos como La Esperanza en Guatemala, La Duquesa en la República Dominicana o Acahualinca en Managua son fiel reflejo de comunidades adaptadas a la recolección de desechos en los Vertederos.*

*Esta Exposición refleja el modo y el lugar en que viven cientos de personas en Latinoamérica que tienen como trabajo la recolección de desechos no orgánicos. Este ensayo realizado junto con la ONG Médicos del Mundo y la Agencia Cover esta igualmente representado bajo el Libro City Hope que acompaña esta exposición y ha sido Galardonado con el Premio Doñana de Periodismo.*

*La exposición Compuesta por 30 fotografías pretende ser un medio de sensibilización al espectador en materia de Medio Ambiente y desarrollo Sostenible que tanto nos preocupa en la actualidad.*





## Juan Angel Arrieta

Tokia/Lugar : Topaleku-Arrate K.E.  
(Zuolagas)

Data/Fecha: maiatzak 1-31 mayo

[erakusketa / exposición](#)

**ARGIA** hortxe egon da beti nire argazkietan, argiari irmo atxikita ibili naiz argazkiei behar duten sakontasuna emateko, perspektiben jokoari uko eginda.

Hala ere, lan honekin (25 eta 35 urte bitarteko lana) haratago joan nahi izan nuen eta argi horrek eskaintzen digun giroa harrapatu nahi izan nuen, gorputzak inguratzen dituen giro argitsu hori, batik bat izadian gertatzen dena.

\*\*\*\*\*

*La LUZ ha estado siempre presente en mis fotografías, a ella me he aferrado para darles una profundidad que he negado al juego de perspectivas.*

*Pero con este trabajo (que tiene entre 25 y 35 años) quise ir un poco más allá y fotografiar la atmósfera que nos brinda esa luz, ese ambiente luminoso que envuelve los cuerpos, principalmente en la naturaleza.*

**27 Trofeo**  
**Argizaiola**  
**Lehiaketa**

Tokia/Lugar:  
EIBARKO KLUB DEPORTIBOA.  
CLUB DEPORTIVO EIBAR

Data/Fecha: maiatzak 1-31 mayo

**erakusketa / exposición**



Egilea / Autor: **Javier Fernández Ferreras**

Hasiera batean, argazki onenak aukeratzen ziren ARGIZAIOLA sarirako. Orain, oster, argazkilari sarituak gonbidatzen dira, eta beraiek aukeratzen dituzte aurkeztuko dituzten argazkiak

1995ean hasi zen sari honen bigarren garaia. Aurten 28. ekitaldia egin da, eta gaur egun ARGIZAIOLA saria osatzen duten lehiaketak hauek dira:

- .- XLI. BIZKAIA INTERNACIONAL
- .- BERGARA HIRIA XXIII ARGAZKI LEHIAKETA
- .- XV KIROL ARGAZKI LEHIAKETA-BERGARA
- .- Donostiako XXXV TROFEO GIPUZKOA INTERNACIONAL
- .- Legazpiko LEGAZPI HIRIA 2007
- .- Eibarko INDALENCIO OJANGUREN XX. ARGAZKI LEHIAKETA
- .- Irungo XVIII CONCURSO FOTOGRAFICO "CIUDAD DE IRUN"
- .- XLIII BEASAINGO SARIA

\*\*\*\*\*  
*El trofeo ARGIZAIOLA fue durante años el máximo exponente de la concursística vasca, pero al decaer la misma, cuando menos el concepto en que estaba basada, cayó en un pequeño paréntesis, para volver con renovada fuerza en el año 1.995. En esta segunda época, estos son los concursos que han sido clasificatorios para el ARGIZAIOLA 2008.*

## TAILERRAK / TALLERES

### Gabriel Brau

#### EL TRATAMIENTO EN BLANCO Y NEGRO DEL ARCHIVO DIGITAL

Egunak/Días: Maiatzak 9-10-11 de mayo 2008  
Lugar/Tokia: EIBAR. Bista Eder  
PORTALEA. Areto Nagusia / *Salón de Actos*  
Ordutegia/Horario: Ostirala 9 viernes: 19:30-20:30 ( *aurkezpena/ presentación*)  
Larunbata 10 sábado: 10:00-14:00 & 16:30-19:30  
Igandea 11 domingo: 10:00-14:00  
Prezioa: DOAN / GRATIS  
Izen-ematea/Inscripción : [argazkilaritza@gmail.com](mailto:argazkilaritza@gmail.com)

### Alfredo Divasson

#### Fotografía en 3 D: ANAGLIFOS

Eguna/Día: maiatzak 17 de mayo  
Lugar/Tokia: EIBAR. PORTALEA.  
Areto Nagusia / *Salón de Actos*  
Ordutegia/Horario: 10:00–14:00  
Prezioa: DOAN / GRATIS  
Izen-ematea/Inscripción : [argazkilaritza@gmail.com](mailto:argazkilaritza@gmail.com)

## ARGAZKI RALLYA RALLY FOTOGRAFICO



### Ekainak 1 Junio

Zuri-beltzean eta Digitalean / *Blanco y Negro, y Digital* .  
Hasiera/ Comienzo : 08:30 – 09:30. Bukaera /Fin:14:30  
Irteera Deportibotik/ Salida desde el Club Deportivo EIBAR (Toribio Etxeberria 16)

